

Pako Urkia Manzidor

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1935-2016)*

Aurkibidea

Biografia



Kirolzale amorratua, Club Deportivoaren eta plairoen gaineko hainbat gorabehera ezagutzen ditu.

Zintak

ZAR-035

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-06-14
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Muniozguren, Fernando

Pasarteak

1. Gurasoak Eibarren ezkondu ziren goizeko 6tan

- **Erref:** ZAR-035/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bederatzi anai-arreba izan ziren. Aita zarauztarra eta ama zumaiarra, gazterik neskame etorria. Gurasoak goizeko seietan Eibarren ezkondu ziren.</p>

Transkripzioa

- Ze mouzko famili-girua izan zenun umetan?
- Ze mouzko familiya?
- Famili, famili-girua.
- Famili izugarri ona. Ona, beti... Gure amak beetzi ume izan zizkiyan. Bat zoritxarrez urte t´erdikin, nik bezela izena ziyan Pako, urte t´erdikin meningitisakin hil huan, baiño beste zortziyak, ba, giro oso ona. Ta beti euskeraz hitz eiten genula, ta herriko jendia, normala.
- Guraso, guraso biyak zarauztarrak?
- Ez, ama zumaiarra. Aita Hilario, zarauztarra ta ama zumaiarra. Zaautza etorri huan zerbitzea oso gazteik eta hemeretzi urte zitula ezkondu huan. Aginaga abogatuan itxian eon huan neskame ta handik ezkondu hituan. Aitak esaten zitxon, "zu etorri zea zu Zarautza Zumaitik" eta, ta bestiak, aitak, berriz, Hilariok, esaten ziyon, "ez, zu jun ziñan nere billa Zumaira", ta. Ez, hor, hor Kale Nausiyan dagon Banco Bilbao Vizcaya itxe hortan bizi hituan Aginagatarrak ta hara etorri huan gure ama neskame ta han ezautu, handikan ezkondu huan: ama hemeretzi urtekin ta aita hoeita hiru urtekin. Ezkondu hituan goizeko seiretan Eibarren.
- Ta nolatan, ba, Eibarren?
- A! Orduan, e, apaiza o gerra denboako zeak hituan ta, estraperlozko apaizan batekin o bahuan orduan garai haietan, zea, ta goizeko seitan Eibarren ezkondu, Eibar, Eibarren ezkondu behar izan ziyen. Bai, bai.
- Gauza arrarua, ez?
- Ta ni neuk ba, betzitikan, e, nere atzetikan hiru, jaio nitzan seigarrena ni betzitikan, seigarrena. Atzetikan Milagros, Gontxalo hil zana ta Hilario Donostiyan bizi dana. Ta zaharrena Karmen, Joxe hil zana, Dolores, Xebastian hil zana, ta lehen esan detena Pako, urte batekin hil zana ta ni, ni seigarrena.

2. Mutikotatik egunkariak saltzen

- **Erref:** ZAR-035/003
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Aita ebanista zen eta ama neskamea. Hoteletan arropak garbitzen lan egiten zuen. Goizeko lauretan joaten zen erreka arropak hartuta. Zazpi urterekin aitari egunkariak banatzen laguntzera joaten zen. Ze egunkari zeuden. Egunkariak saltzeko postua zuten plazan.</p>

Transkripzioa

- Gurasuek ba al zuten negoziokan, edo?

- Ez. Gure aita...

- Zerta dedikatzen zan aita?

- Gure aita huan ebanista, eta gure ama neskamia. Iten ziyen, ba, hoteletako ta erropa garbitzea juten huan, beste emakume batzuekin. Familiya aurrera ateako bazuen goizeko lauretan ta erropa, Salbideko erreka juten hituan besten, e, hoteletako, Otamendi ta toki askotako, Ixetako erropak eta garbitzea. Ni gootzen nauk nola baldia buruan jartzen zun ta goizeko lautuan juten zan erreka ta seitako atzea berriz 'e buelta, Salbideko harriik onena hartzea, garbiyena. Bea bezela beste batzuk. Erropa garbitu ta seitako ya danai deitu ta, gu ya zazpi urtekin, ni behintzat, ta, ba, anai danak, aita difuntuak deitzen ziun, ta "benga, mutillak, estaziyoa!". Trenian orduan etortzen hituan perioikuak goizeko zazpitan etortzen hituan perioiko danak. Eta, periodiko txamar batzuk partitu zazpi urtekin, hori izango huan berrogita biyan, ta geo hermanota, eskola geo, periodikua partitu ta geo. Ta holaxe, holaxe [hazikiyak] gaituk danok.

- Ordun, ya aita bazuen periodikuak partitzeko, zea, negoziyua edo...?

- Bai, aitai eman zitxioen ba, periodiko este, este.. Orduan zitxion La Voz de España baiña, La Voz de España ta Diario Vasco bakarrik hituan hamenguak, geo Gazeta del Norte ta gehio bahituan baiño. E... hoi en aurretik 'e bahituan La Constancia o, periodiko batzuek nik, nik ez dixkit ezutu, nik aitu in dixkiyat. Eta holaxe, gure ama difuntai in zitxion Perez Zuzuarregik, oan merkatuan daon puestua egurrezkua, gerra denboran in zitxion, ta harekin hasi huan periodikuak saltzen merkuan, merkatuko puesto batekin hasi giñen, ta aita ebanista.

- Ze urtetan huan hori?

- E... Ni berrogei ta biyakin ya periodikuak partitzen hasi, baiño lehenuo. Nee arrebak larogei urte in, in, in dixkik, o laroei ta bat, ta ordurako ya hasi giñen perioikuakin nere arreba zaharrena. Bai, laroei ta y piku urte. Uste diyat Gipuzkuan oso gutxi dabela, Diario Vasco fundatu zanetikan saltzen diyau guk. Ta ni gogoratzen nauk urte haitan La Voz de España askoz 'e gehio saltzen zala eta deitu zitxiun esanaz, beno, estaziyoa atea ta treneta erten beharko giñula perioiku gehio saltzeko ta nik eskolatik erten eta treneta juten nituan, han estaziyuan buillaka perioikuak saltzen. Mutil koxkorak giñala.

- Ze builla iten zenun?

- Periodikun izena, perioikuan izena. Diario Vasco, ta arratsaldian Unidad ta, garai hartan zaben periodikuak. Abotsa beti nahiko fuertia izan diyau, uste diyat entrenauta naola horreatikantxe zapi urtetikan buillaka periodikuak saltzen.

- Ordu gozian periodikuak saldu seietik zortzi t 'eredita o hola, ta geo gosalduta eskola.
- Bai, bai. Aita difuntuak sei t 'ereditako deitzen zizun ta, "benga, mutilak!". Ta ni bezela beste anaiak, ta perioiko batzuk partitu ta, ba, ni eskola, e, Xebastian 'e eskola eta bestiak, Joxe ta bestiak taillarrea. Itxaropenian iten zian Joxek lana eta Karmenek itxeko lanak. Hua huan ama, arreba huan baiño ama huan porke ama beti lanian kanpua errapa ta garbitzen familiya, hoteletako ta.

3. Anai-arreba guztiak egunkariak saltzen

- **Erref:** ZAR-035/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Egunkari-banaketa oinez egiten zuten; gerora bizikletan ere bai. Anai-arreba guztiak aritzen ziren horretan lanera edo eskolara joan aurretik. La Voz de España saltzen zen gehien.</p>

Transkripzioa

- Ta banaketa, periodiko banaketa hori, nola iten zan, bizikletan ta bai?
- Oiñez!
- Oiñez?
- Orduan...
- Bizikletaik ere ez?
- Geo, geora bizikleta. Geo [Velosolesa], geo Mobileta. Baiña hasieran oiñez, danon artian. Anai danok [partitzen giñen]. Urte batzuk izan giñen ya, geo ya asko saltzen zanian da ya bostehun periodiko zabaltzen [...] guk taillarrea jun baiño lehenuo. Geo ya taillarrian hasi giñanian, ba, taillarrea jun baiño lehenuo, perioikuak seitako hasi perioikuak partitzen ta zortzitako taillarrea jun behar ta. Bai Dolores ta Milagros ta Gontxalo ta Xebastian ta danok perioikok partitu ta geo bakoitza bere lantokira.
- Ta zazpi urte hituanian, zenbat, zenbat kostatzen huan perriodiko bat, ordun, gogoatzen al haiz?
- Ez nauk gooratzen, baiño xentimo, ez zekit perro haundiya izango zan, o.
- Perro haundiya?
- Holako bat. Errialakin ta. Hori uste diyat, perro haundiya o hola izango zala.
- Ta ordun asko banatzen al zan, asko irakurtzen al zun jentiak?
- Gutxi, gutxi, oso gutxi, oso gutxi. Ta esaten diyaten bezela, La Voz de España ordun askoz 'e gehio saltzen huan, Diario Vasco askoz 'e gutxiyo. Eta bueno, denboakin jun dek, ba, aldaketa.

4. Egunkariak banatzen kanpotarren artean; propinak

- **Erref:** ZAR-035/005
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txaletetara eta tabernetara eramaten zituzten egunkariak eta udaran hondartzan ere banatzen zituzten. Egunkari-mota asko izaten zituzten, baita kanpokoak ere beraneanteei eskaintzeko. Udan irabazitako propinekin hiru anaien ikasturtea ordaindu eta dirua sobratu zitzairen. Mutikotan jota egoten zen egiten zuen lanagatik. Familia guztietan berdin ibiltzen ziren.

5. Lanagatik ikasturtea errepikatu zuen

- **Erref:** ZAR-035/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lehenbiziko bi urteak Sta. Anan egin zituen eta ondoren La Salle-n ibili zen. Ze irakasle izan zituen. Euskaraz egin ezin zutenez, irakasle batek euskal kanta irakasten zizkien. Egunkari-banaketekin galdutako denboragatik ikastaroa errepikatu zuen. Zuzendarien izenak.

6. Jai-txiki kuadrilla

- **Erref:** ZAR-035/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Kuadrillako ekipoak "Jai-txiki" zuen izena. Kuadrillakoen izenak. Astean duro bat botata txuleta-jana egin zuten. Beste behin "vuelta a la costa" egin zuten.</p>

7. Mutikotako betebeharrak eta entretenimendua

- **Erref:** ZAR-035/009
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Mutikotan mezara joaten ziren irakasleekin igandetean. Arratsaldean bezperetara joan behar izaten zuten, eta bestela zigorra. Igandetako entretenimenduak: pilota, futbola, zinea, dantza...</p>

8. Herriko otxoteen lehiaketa

- **Erref:** ZAR-035/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:21:36. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Kuadrillan asko abesten zuten tabernetan. Ze tabernatan ibiltzen ziren.

Zinema frontoian herriko otxoteen lehiaketa antolatu eta irabazi egin zuten.</p><p>

9. Futbola talde federatua eta plaieroen sorrera

- **Erref:** ZAR-035/012
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:29:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

24 urte inguruan dagoeneko bazeuden futbol taldeak eta jokariak Zarautzen. Geroago Emilio Olazabalek "Aitzaki" eta "Tximista" koadrilen taldeak batu eta Zarautzen izenean taldea sortzea proposatu omen zuen. Azpeitiren kontra irabazi eta taldea federatu egin zuten. "Plaieroak" nola sortu ziren 44an.

10. Futbol plaieroa eta erregionala

- **Erref:** ZAR-035/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:32:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Batzuetan pilotara joaten zen, hondartzan beti ezin zelako futboleant egin. Venezuelatik larruzkoa baino baloi arinagoa ekarri zuten eta egokiagoa zen hondartzan jokatzeko. Klub deportiboa sortu zenean sortu ziren talde "plaieroa" eta erregionala.

11. Klub Deportiboa; eskubaloia ren hasiera

- **Erref:** ZAR-035/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:37:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Hasieran xakea, pilota, atletismoa eta futbola sartzen ziren klub deportiboan. Gerora kirol gehiago sartu zituzten. Eskubaloia sartzeko nolako gorabeherak izan zituzten. Obretako posteak lapurtuta egin zituzten porteriak.

12. Klub Deportiboa; saskibaloia ren hasiera

- **Erref:** ZAR-035/017
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:37:46. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Saskibaloia nola sartu zuten. Donostiatik ekarri zituzten bi kanasta. Partiduak jokatzeko nolako gorabeherak izaten zituzten. "Askatuak" eta "Real Madrid"-en partidua jarri nahi zuten Zinema frontoian, baina neurritz txikiagia zen.

13. Direktibakoen lana

- **Erref:** ZAR-035/018
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Direktibakoek egiten zituzten lan guztiak: antolatu, arbitratu, jaso...

14. Lehenbiziko maratoia nola antolatu zen

- **Erref:** ZAR-035/019
- **Iraupena:** 0:07:04. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:49:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Emilio Olazabali Zarautzen maratoia antolatzea bururatu zitzaion. Azkoititik Zarautzera izan zen lehenbiziko maratoia. Abebe Bikila munduko txapeldunak irabazi zuen. Saria txapela besterik ez zen izaten, laguntza gutxi izaten zuten eta. 300 zarauztar aritu ziren antolaketan laguntzen.

15. Bigarren maratoiaren inguruko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-035/020
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:49:12. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bigarren urteko maratoia Zarautzik Zumaiara joan-etorria antolatu zuten. Etioppeak astebete lehenago etortzen ziren eta entrenatzen ari zirela Abebe Bikilak orkatila okertu zuen. Lasterketa korritu zuen, baina erretiratu egin behar izan zen.

16. 50 km-ko martxa antolatu zenekoa

- **Erref:** ZAR-035/022
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:57:22. **Bukatu:** 00:59:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>50 km-ko martxa ere antolatu zuten. Eguraldi oso txarra egin zuen eta parte-hartzaileek lur jota bukatu zuten.</p>

17. Golf-ean antolatzen zen krosa

- **Erref:** ZAR-035/023
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:59:28. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Golf-ean urtean egun batean krosa antolatzen zen. Behin elurrari aurre egiteko gatza bota eta green-ak erre zituzten nahi gabe.</p>

18. Lehenbiziko talde jubenilaren sorrera

- **Erref:** ZAR-035/024
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 01:01:08. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>55ean lehenbiziko talde jubenila atera zuten Klub Deportiboan 14 jokalarirekin. Nortzuk osatzen zuten taldea. Hondartzan paretean marrak pintutatuta banatu zituzten neurri bereko zelaiak. Porteriak nola egin zituzten. Diru-laguntzak.</p>

19. Burnizko porteriak nola egin zituzten

- **Erref:** ZAR-035/026
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:07:17. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Dirua aurreztearren beraiek egin zituzten porteriak. Nola antolatu ziren burnizko porteriak egiteko. Finalerako ozta-ozta bukatu zituzten. Aurreztutako diruarekin ekipo jubenila atera zuten.

20. Talde handiagoetara joandako jokalaria

- **Erref:** ZAR-035/027
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Plaiertotik atera diren jokalaria: Txurruka, Amilibia.. Jubeniletako ekipoan zeuden 11tatik 10ek jokatu zuten nazionalean. Ekipo handiagoetara joandako jokalaria.

21. Manolo Urzelai-ren omenaldiko partidua

- **Erref:** ZAR-035/030
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:16:12. **Bukatu:** 01:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Manolo Urzelai-ri eginiko omenaldian pilotan jokatzearren duro bana eman zieten. Nortzuk jokatu zuten eta ze jende bildu zen bertara. Lehiakidea askoz hobea zen, baina jende asko ikustean "pasatuta" geratu zen.

22. Dendan lapurretan egin zietenekoa

- **Erref:** ZAR-035/032
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Dendan erregalorako gauzak ere saltzen zituzten egunkari eta aldizkariekin batera. Lapurretan egin zieten eta izugarrizko kaltea izan zen.</p>

Transkripzioa

-Oain dala hogeita hiru urte han, horrenbeste urtian lana in ta geo, ya denda... joyak eta erregaluak eta....
-Lapurreta, ez?
-Lapurreta izan giñun, atzeko aldetikan, patiyoko atzeko aldetikan.
-Hire arrebak kontatu zikan behin, bai.
-Guardia zibillak-eta aurrian, behian, pasian, ta guk ordun atian giñun, ba, persiana batzuk ta bizi giñan freteko etxian. Eta ni etxea jun nitzanian goizeko seitan, atia irikita, ui! atzeko patiyua-eta irikita, "ze pasatzen da / pasatzea/ hemen?" ta joe! geatu nitzan gerriko min batekin...[ze in, jarri ez nekila nola ez nitzan hilda geatu han hi...] panorama ikusita, zea, reloju merkiak, altzairuzko zea hoiak danak lagata, baiño urria dana fffffff...
Orduan hogei bat kilo, orduan e! Etorri zian poliziyak.... buo danetik... odol mantxak eta danak kristaletan-ta... Gaur arte!
-Ze urte zan hori? Ze urte?
-Hogeita hiru urte oain izango dituk.

23. Dantza eta ligatze-kontuak

- **Erref:** ZAR-035/035
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:25:35. **Bukatu:** 01:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Dantza-kontuak eta ligatze-kontuak nolakoak izaten ziren. Aste Santuan futbola eta jokia debekatuta egoten ziren.</p>

24. Imanol Murua eta bieri gertatutakoa

- **Erref:** ZAR-035/037
- **Iraupena:** 0:05:44. **Hasi:** 01:27:28. **Bukatu:** 01:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Soldaduskan zeudela Imanol Murua eta bieri gertatu zitzaizen gertakizuna. Indiara joan behar zirela uste zuten eta familia agurtu ostean Donostiara joan eta berandu joan zirelako libratu ziren.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com